

## LIZARDI'RI

Zigor ontaz, Uda, ba'al-duk  
aterpe? Ara zuzen nazak, luzatu  
gabe!

Olerkarien maixutzat dugu  
euskaldun denok Lizardi,  
gogo-miñaren barrutietan  
zalako nausi aspaldi.  
Parnaso billa dabillen bat naiz,  
opatzuz zure goraldi,  
eskeñiz nator il ez dedian  
sekula ama Euskadi.

Erio maltzuraren erpetan  
zetzuna zuen gorputza,  
kantuz edertzen ari zelarik  
asaba zaarren baratza,  
estaldu zuen udaberriak  
gañera jaurtiz lur otza,  
atsekabe aundiz utzirik emen  
euskaldunaren biotza.

Barne-muñetik ain maitagarri  
zuen mintzaira jatorra;  
lanpide ori gerokuontzat  
ez al ote dugu zorra?  
Negar-zotiña adieraziz  
dugu euskaldun alorra.  
Mende ontako euskeltzaleok  
ez dugu palta nun jorra.

Olerkarian amets lillurak  
zarpilduz, illeta jasa,  
lurrikararen astiñaldia  
zirudian zala pasa,  
geroztik ez da gure artean  
izan biotzikan lasa.

Berari esker, gure lurrean,  
oraindik bada arnasa.

Lora eztitsu txanbelin zelai  
gure lirikak lortu dau.

O!, ze premiñagarri zitzaigun  
gidariz bera bear au  
euskerarentzat diran egunak  
nai ez dugunok biur gau,  
aurrera tinko jarrai dezagun  
bada orain zenbait arau.

Gaurkoz ditugun bide mingotsei  
betoz arbaso deadar,  
etsipenaren maldak ukatuz  
ari gaitezan su ta gar! ;  
odol berdiña iturburutzat  
bere arimaren bear.  
Baratza jorra nairikan dator  
gaurkoan seme *Otsalar*.

Otsalar

## LAZTAN BERO BATEAN ZORABIATURIK

Laztan bero batean zorabiaturik  
mende oso-osea da bertan galdua,  
besoetan estutuz erazko gogua,  
taupada miñetara bularrak loturik.

Landarezko alorren zabal ezeetan  
Uztak garrez suturik, barnean dizdira ;  
arimak urrumazka igesikan dira,  
bere asmo txaramel exkutupekoan.